

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
ADMINISTRAZIOA**

2

**ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO
HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****EKONOMIA SUSTAPENENKO, LANDA INGURUNENKO
ETA LURRALDE OREKAKO DEPARTAMENTUA**

Nekazaritza ingurumenaren eta klimaren laguntzen eta nekazaritza ekologikoaren laguntzen 2017ko deialdia.

Diputatuen Kontseiluak 2017ko martxoaren 21Eko bileran honako erabakia hartu du:

«2016ko apirilaren 5eko 6/2016 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustiatzei landa garapenerako laguntzak ematekoak, nekazaritza ingurumenaren eta klimaren arloko laguntzak eta nekazaritza ekologikorako laguntzak arautu ditu, nekazaritza ustialekuan ingurumenean eragin positibo frogagarri eta nabarmena duten ekoizpen metodo jakin batzuk sartzeko konpromisoa hartzen duten Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazarietara zuzenduta (III. Kapituluak).

Era berean, kontuan hartu behar da 2017ko otsailaren 17an *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* argitaratu dela 2017ko otsailaren 14ko 43/2017 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan landa-garapenerako laguntzen esparru-araudia ezartzen duena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Erregelamenduan xedatutakoarekin eta 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programarekin bat etorritik. 2016ko apirilaren 5eko 6/2016 Foru Dekretuaren araudia eta erabaki honen bidez onartzen den deialdiaren edukia bat datoz aipatutako dekretuan xedatutakoarekin.

Horrela, deialdi honetako diru laguntzak aipatutako Landa Garapenerako Programan jasota daude eta, horregatik, Europar Batasunak finantza ditzake % 75ean, Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtsetik (FEADER).

Erabaki honen bidez nekazaritza ingurumenaren eta klimaren arloko laguntzen eta nekazaritza ekologikorako laguntzen 2017ko deialdia onartzen da, beren ustialekuetan biodibertsitateari lagunduko dioten eta ingurumena errespetatuko dituzten ekoizpen sistemak eta praktikak borondatez hartzen dituzten nekazarietara konpentsatzeko helburuarekin. Ondoko hauek izango dira laguntza lerroak:

10. neurria. Nekazaritza ingurumena eta klima.

- 10.1) neurria: ekoizpen integratua.
- 10.2) neurria: Euskal Herriko sagardotarako sagarrondo tokiko bariatateak, higadura genetikoaren mehatxupean daudenak, kontserbatzea.
- 10.3) neurria: bertako abere arrazen kontserbazioa.
- 10.4) neurria: erlezaintza, biodibertsitatea hobetzeko.
- 10.5) neurria: mendiko larreen aprobetxamendua kudeatzea.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA,
MEDIO RURAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL**

Convocatoria 2017 de las ayudas de agroambiente y clima, y las ayudas a la agricultura ecológica.

El Consejo de Gobierno Foral, en su reunión de 21 de marzo de 2017, ha adoptado el siguiente acuerdo:

«Mediante el Decreto Foral 6/2016, de 5 de abril, de ayudas al desarrollo rural a las explotaciones agrarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se han aprobado las bases reguladoras para conceder las ayudas de agroambiente y clima, y las ayudas a la agricultura ecológica destinadas a aquellos agricultores del Territorio Histórico de Gipuzkoa que se comprometan a introducir en su explotación agraria determinados métodos de producción que posibiliten un efecto favorable y significativo en el medio ambiente (Capítulo III).

Procede tener en cuenta asimismo que con fecha 17 de febrero de 2017 se ha publicado en el *Boletín Oficial del País Vasco* el Decreto 43/2017, de 14 de febrero, por el que se establece, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la normativa marco de las ayudas al desarrollo rural, de conformidad con lo dispuesto en el Reglamento (UE) n.º 1305/2013 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 17 de diciembre de 2013, y con el Programa de Desarrollo Rural de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2015-2020. Tanto la regulación del Decreto Foral 6/2016, de 5 de abril, como el contenido de la convocatoria que se aprueba mediante el presente acuerdo, se ajustan a lo dispuesto en el citado decreto.

Así, las ayudas de esta convocatoria están incluidas dentro del citado Programa de Desarrollo Rural, siendo susceptibles de cofinanciación en un 75 % de su importe a través del Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER).

Mediante el presente acuerdo se aprueba la convocatoria de 2017 de ayudas de agroambiente y clima, y ayudas a la agricultura ecológica, destinadas a compensar a los agricultores y agricultoras que suscriban de forma voluntaria compromisos que fomenten sistemas productivos y prácticas que beneficien la biodiversidad y respeten el medio ambiente. Se subvencionarán las siguientes líneas de ayuda:

Medida 10. Agroambiente y clima.

- Medida 10.1): Producción Integrada.
- Medida 10.2): Conservación de variedades locales de manzanas de sidra del País Vasco amenazadas por erosión genética.
- Medida 10.3): Conservación de razas de animales locales.
- Medida 10.4): Apicultura para la mejora de la biodiversidad.
- Medida 10.5): Gestión del aprovechamiento de los pastos de montaña.

11. neurria. Nekazaritza ekologikoa.
- 11.1) neurria: nekazaritza ekologikora bihurtzea.
 - 11.2) neurria: nekazaritza ekologikoa mantentzea.

Hala, neurri horien arloan jarritako helburuak lortzeko, Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuaren aurtengo ekitaldiko aurrekontuetan bi kontu sail daude, 1.100.000,00 eurokoa nekazaritza ingurumenaren eta klimaren arloko neurrirako, eta 150.000,00 eurokoa nekazaritza ekologikoaren arloko neurrirako.

2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 31.5.b) artikuluan eta lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, Diputatuen Kontseiluari dagokio, zenbatekoa dena delako, laguntza programa horren gastua baimentzea.

Hori horrela, Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuko foru diputatuak proposata, eta eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

ERABAKI DU

Lehena. Onartzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ingurumenaren eta klimaren laguntzen eta nekazaritza ekologikoaren laguntzen 2017ko deialdia: erabaki honen eranskin gisa doana. Aipatutako diru laguntzak 2016ko apirilaren 5eko 6/2016 Foru Dekretuko III. Kapituluaren arautzen dira.

Bigarrena. Baimentzea 1.100.000,00 euroko gastua 1.0430.300.480.00.06.2017 kontu sailaren kargura eta 150.000,00 euroko gastua 1.0430.300.480.00.02.2017 kontu sailaren kargura, deialdi horri aurre egiteko.

Baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, diru laguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean. Bide hori erabili aurretik, berraztertze errekurtsioa aurkez diezaiokete partikularrek Diputatuen Kontseiluari, aipatutako egunetik hasita hilabeteko epean. Dena dela, egokitzat hartutako beste edozein ere aurkez daiteke.»

Donostia, 2017ko martxoaren 21a—Alfonso Acarreta Rodríguez, idazkari teknikoa. (2025)

ERANSKINA

Nekazaritza ingurumenaren eta klimaren laguntzen eta nekazaritza ekologikoaren laguntzen 2017ko deialdia.

1. Oinarri arautzaileak.

2016ko apirilaren 5eko 6/2016 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustiatzei landa garapenerako laguntzak emateko: mendialdeetako eta muga naturalak nabarmenak dituzten zonaldeetarako laguntzak; nekazaritza ingurumenaren eta klimaren arloko laguntzak; eta nekazaritza ekologikorako laguntzak (apirilaren 11ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 66 zk.); I. eta III. Kapituluak. Foru dekretu hori beste honek aldatu du: 2017ko martxoaren 14ko 12/2017 Foru Dekretua (martxoaren 20ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 55 zk.).

Medida 11: Agricultura ecológica.

- Medida 11.1): Conversión a agricultura ecológica.
- Medida 11.2): Mantenimiento de agricultura ecológica.

Para la consecución de los objetivos marcados en el ámbito de estas medidas, los presupuestos del Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial correspondientes al presente ejercicio contemplan sendas partidas de 1.100.000,00 euros para la medida de agroambiente y clima y de 150.000,00 euros para la medida de agricultura ecológica.

De conformidad con lo establecido en el artículo 31.5.b) y la disposición adicional primera de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, corresponde al Consejo de Gobierno Foral, por razón de la cuantía, la autorización del gasto correspondiente a este programa de ayudas.

En su virtud, este Consejo de Gobierno Foral, previa deliberación y a propuesta de la diputada foral del Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial

ACUERDA

Primero. Aprobar la convocatoria de 2017 de las ayudas de agroambiente y clima, y ayudas a la agricultura ecológica en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, previstas en el capítulo III del Decreto Foral 6/2016, de 5 de abril, convocatoria que se acompaña como anexo al presente acuerdo.

Segundo. Autorizar un gasto de 1.100.000 euros con cargo a la partida presupuestaria 1.0430.300.480.00.06.2017 y de 150.000 euros con cargo a la partida 1.0430.300.480.00.02.2017, para hacer frente a la citada convocatoria.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo las personas interesadas interponer contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de su publicación. Con carácter previo a la utilización de dicha vía las personas particulares podrán interponer recurso de reposición ante este Consejo de Gobierno Foral en el plazo de un mes desde la fecha antes citada, todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que se estime oportuno.»

San Sebastián, a 21 de marzo de 2017.—El secretario técnico, Alfonso Acarreta Rodríguez. (2025)

ANEXO

Convocatoria 2017 de las ayudas de agroambiente y clima, y las ayudas a la agricultura ecológica.

1. Bases reguladoras.

Capítulos I y III del Decreto Foral 6/2016, de 5 de abril, de ayudas al desarrollo rural a las explotaciones agrarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa: ayudas a zonas de montaña y otras zonas con limitaciones naturales significativas; ayudas de agroambiente y clima; y ayudas a la agricultura ecológica (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 66, de 11 de abril), modificado por Decreto Foral 12/2017, de 14 de marzo (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 55, de 20 de marzo).

2. Baldintzak eta onuradunak.

Nekazaritza ustiatzearen titular diren pertsona fisiko eta juridikoek jaso ahal izango dituzte diru laguntza hauek, baldin eta betetzen badituzte: batetik, onuradun izaera lortzeko Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 12. artikuluan ezarritako baldintzak; eta, bestetik, 1. atalean aipatutako foru dekretuak 24, 25 eta 28 artikuluetan xedatutako baldintza bereziak.

3. Diru laguntzen xedea.

Diru laguntza hauek beren nekazaritza ustiatzearen nekazaritza ingurumenari eta klimari buruzko borondatezko konpromisoak hartzen dituzten nekazariari zuzentzen da. Diru laguntzen helburuak dira:

- Bultzatzea landa eta nekazaritza paisaiaren zaintza, hobekuntza eta dibertsifikazioa.
- Sustatzea biodibertsitateari lagunduko dioten eta ingurumena nahiz animalien ongizatea errespetatuko dituzten ekoizpen sistemak eta praktikak.
- Nekazaritzako biodibertsitatea babestea.
- Nekazaritzatik datozen berotegi efektuko gasak eta amoniako igorpenak gutxitzea.
- Uraren eta luraren kudeaketa hobetzea.
- Nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintzako jardueretik sortzen diren azpi produktuak kudeatzea eta horiei balioa ematea.

4. Aurrekontu kredituak.

Deialdi honetarako aurrekontu zuzkidura guztira 1.250.000,00 eurokoa da, 1.0430.300.480.00.06.2017 kontu sailaren kargura (1.100.000,00 €) eta 1.0430.300.480.00.02.2017 kontu sailaren kargura (150.000,00 €).

5. Diru laguntzen zenbatekoa.

Nekazaritza ingurumeneko eta klimako, eta nekazaritza ekologiko konpromisoei buruzko urteko primak honako hauek izango dira 2017. urterako:

- 10.1. neurria: ekoizpen integratua.

Landaketa multzoa	Diru laguntza
Aire libreko baratze laborantza	472 €/ha/urte
Berotegiko baratze laborantza	1.064 €/ha/urte
Txakolinerako mahastia	594 €/ha/urte
Kiwi	420 €/ha/urte
Sagarrondo	402 €/ha/urte
*Esnetarako behi aziendari lotutako nekazaritza azalera	98 €/ha/urte

* Esnetarako behi aziendari lotutako nekazaritza azalera-tzat hartuko da esnetarako behiak elikatze erabiltzen dena. Onuradunei esleitutako herri onurako mendiengatik ez da diru laguntzarik jasoko.

- 10.2. neurria. Higadura genetikoaren mehatxupear dauden sagardotarako sagarrondoaren tokiko bariatateak konserbatzea.

Laborantza multzoa	Laguntzen zenbatekoa
5 urte edo gehiagoko landaketak	723 €/ha/urte
Urte bat bete duten eta 5 urteetara iristen ez diren landaketak	349 €/ha/urte

2. Requisitos y personas beneficiarias.

Serán beneficiarias de estas ayudas las personas físicas y jurídicas titulares de explotaciones agrarias que cumplan tanto los requisitos para obtener la condición de persona beneficiaria contemplados en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, como los requisitos específicos recogidos en los artículos 24, 25 y 28 del decreto foral señalado en el apartado 1.

3. Objeto de las ayudas.

Estas ayudas están destinadas a compensar a los agricultores y agricultoras que suscriban de forma voluntaria compromisos agroambientales-climáticos en las explotaciones agrarias y cuyos objetivos serán los siguientes:

- Impulsar la conservación, mejora y diversificación del paisaje rural y agrario.
- Fomentar sistemas productivos y prácticas que beneficien la biodiversidad y respeten el medio ambiente y el bienestar de los animales.
- Preservar la agrobiodiversidad.
- Reducir las emisiones de gases de efecto invernadero y de amoníaco procedentes de la agricultura.
- Mejorar la gestión del agua y del suelo.
- Gestionar y valorizar los subproductos generados en las actividades agrícolas, ganaderas y forestales.

4. Créditos presupuestarios.

La dotación presupuestaria para esta convocatoria asciende a la cantidad total de 1.250.000,00 euros, con cargo a las partidas presupuestarias 1.0430.300.480.00.06.2017 (1.100.000,00 €) y 1.0430.300.480.00.02.2017 (150.000,00 €).

5. Importe de las ayudas.

Para el año 2017, los importes de las primas anuales correspondientes a los compromisos de agroambiente y clima, y agricultura ecológica, serán los siguientes:

- Medida 10.1. Producción integrada.

Grupo de cultivo	Cuantía de la ayuda
Cultivo hortícola al aire libre	472 €/ha/año
Cultivo hortícola bajo invernadero	1.064 €/ha/año
Viñedo txakoli	594 €/ha/año
Kiwi	420 €/ha/año
Manzano	402 €/ha/año
*Superficie agrícola asociada al vacuno de leche	98 €/ha/año

* Tendrá la consideración de superficie agrícola asociada al vacuno de leche aquella que es utilizada para la alimentación del ganado vacuno de leche. Los montes de utilidad pública asignados a las personas beneficiarias no tendrán derecho a la ayuda por este concepto.

- Medida 10.2. Conservación de variedades locales de manzanos de sidra del País Vasco amenazadas por erosión genética.

Grupo de cultivo	Cuantía de la ayuda
Plantaciones de 5 o más años	723 €/ha/año
Plantaciones que hayan cumplido un año y con menos de 5 años	349 €/ha/año

- 10.3. neurria. Bertako abere arrazen kontserbazioa
- Medida 10.3. Conservación de razas animales locales

Espezia	Arraza	Laguntzen zenbatekoa
Behiak	Betizu	200 €/ALU/urte
	Terreña	200 €/ALU/urte
	Montxina	200 €/ALU/urte
Ardi-ahuntzak	Azpi Gorria	156 €/ALU/urte
	Karrantzako ardia, aurpegi beltzekoa	156 €/ALU/urte
	Sasi ardia	156 €/ALU/urte
Zaldiak	Pottoka	200 €/ALU/urte
	Enkarterrietako astoa	200 €/ALU/urte
	Euskal Herriko Mendiko Zaldia	151 €/ALU/urte
Hegaztiak	Euskal Antzara	200 €/ALU/urte
	Euskal Oiloa	200 €/ALU/urte
Txerriak	Euskal Txerria	200 €/ALU/urte

Especie	Raza	Cuantía de la ayuda
Bovino	Betizu	200 €/UGM/año
	Terreña	200 €/UGM/año
	Monchina	200 €/UGM/año
Ovino/caprino	Azpi Gorri	156 €/UGM/año
	Carranzana de cara negra	156 €/UGM/año
	Sasi-ardi	156 €/UGM/año
Equino	Pottoka	200 €/UGM/año
	Asno de las Encartaciones	200 €/UGM/año
	Caballo de Monte del PV	151 €/UGM/año
Aviar	Euskal Antzara	200 €/UGM/año
	Euskal Oiloa	200 €/UGM/año
Porcino	Euskal Txerria	200 €/UGM/año

- 10.4. neurria erlezaintza, biodibertsitatea hobetzeko

Egiten den ezti mota	Laguntzen zenbatekoa
Ezti arrunta 1	10,5 €/ha/urte
* Ezti bereizgarriduna	12,5 €/ha/urte

* Ezti bereizgarriduna izango da Eusko Label bereizgarri-dun «Euskal Eztia-Miel del País Vasco» markaren arautegiaren arabera edo Ekoizpen Ekologikoko arauen arabera ekoizten dena.

- 10.5. neurria. Mendiko larreen aprobetxamendua kudeatzea.

Laguntzaren zenbatekoa 65 €/ha/urteko da, eta onuradun bakoitzak 46 ha konprometitu ditzake gehienez ustategi bakoitzeko.

- Medida 10.4. Apicultura para mejora de la biodiversidad.

Tipo de miel elaborada	Cuantía de la ayuda
Miel normal	10,5 €/ha/año
* Miel diferenciada	12,5 €/ha/año

* Tendrá la consideración de miel diferenciada aquella que ha sido producida con arreglo a las normas de Producción Ecológica o el Reglamento de la marca «Euskal Eztia-Miel del País Vasco» con distintivo Eusko Label.

- Medida 10.5. Gestión del aprovechamiento de los pastos de montaña.

El importe de ayuda es de 65 €/ha/año, siendo 46 hectáreas el máximo de superficie de pastos que se puede comprometer por persona beneficiaria y explotación en esta medida.

• 11.1. neurria. nekazaritza ekologikora bihurtzea.

<i>Laborantza multzoa</i>	<i>Laguntzen zenbatekoa</i>
* Bazkak eta proteinadunak	190 €/ha/urte
* Larreak eta belardiak	193 €/ha/urte
Kontsumoko patata	420 €/ha/urte
Aire zabaleko baratzea	1.284 €/ha/urte
Berotegiko baratzea	2.013 €/ha/urte
Fruitu lehorrak	448 €/ha/urte
Frutagintza	900 €/ha/urte
Mahastizaintza (txakolina)	900 €/ha/urte
Ale zerealak	244 €/ha/urte

<i>Abereak</i>	<i>Sariari egotziko zaion oinarria abeltzaintza ekoizpeneko ha bakoitzeko</i>
Hegazti hazkuntza:haragia	109 € / ALU
Hegazti hazkuntza:arrautzak	75 € / ALU
Ahuntzak	63 € / ALU
Ardiak: haragia	56 € / ALU
Ardiak: esnea	63 € / ALU
Behiak: haragia	32 € / ALU
Behiak: esnea	117 € / ALU
Zaldiak	9 € / ALU
Txerriak	137 € / ALU

* ALUen arabera sari batura gehitu egingo zaio bazka, proteinadun, larre eta belardi landaketen azalerari dagokion oinarriko zenbatekoari, proportzionalki. Abere sari hori izango da adierazitako hektarea bakoitzeko 2 ALUkoa gehienez ere. Batuketa egin ondoren, egiaztatuko da hektarea bakoitzeko ordaintekak ez duela gainditzen 450 €/ha. Onuradunei esleitutako herri onurako mendiengatik ez da diru laguntzarik jasoko.

• 11.2. neurria. Nekazaritza ekologikoa mantentzea.

<i>Laborantza multzoa</i>	<i>Laguntzen zenbatekoa</i>
* Bazkak eta proteinadunak	168 €/ha/urte
* Larreak eta belardiak	193 €/ha/urte
Kontsumoko patata	348 €/ha/urte
Aire zabaleko baratzea	923 €/ha/urte
Berotegiko baratzea	1.561 €/ha/urte
Fruitu lehorrak	372 €/ha/urte
Frutagintza	900 €/ha/urte
Mahastizaintza (txakolina)	900 €/ha/urte
Ale zerealak	222 €/ha/urte

<i>Abereak</i>	<i>Sariari egotziko zaion oinarria abeltzaintza ekoizpeneko ha bakoitzeko</i>
Hegazti hazkuntza: haragia	93 € / ALU
Hegazti hazkuntza: arrautzak	69 € / ALU
Ahuntzak	56 € / ALU
Ardiak: haragia	51 € / ALU
Ardiak: esnea	56 € / ALU
Behiak: haragia	26 € / ALU
Behiak: esnea	103 € / ALU
Zaldiak	26 € / ALU
Txerriak	127 € / ALU

* ALUen arabera sari batura gehitu egingo zaio bazka, proteinadun, larre eta belardi landaketen azalerari dagokion oinarriko zenbatekoari, proportzionalki. Abere sari hori izango da adierazitako hektarea bakoitzeko 2 ALUkoa gehienez ere. Batuketa egin ondoren, egiaztatuko da hektarea bakoitzeko ordaintekak ez duela gainditzen 450 €/ha. Onuradunei esleitutako herri onurako mendiengatik ez da diru laguntzarik jasoko.

Egindako eskaeraren ondoriozko diru laguntzak 300 euroko zenbatekoa gainditu ezean, eskaerak ez du laguntzarako eskubiderik izango.

Diru laguntzak norgehiagoka prozeduraren bidez emango dira, betiere ezarritako kreditu mugen barruan.

• Medida 11.1. Conversión a agricultura ecológica.

<i>Grupo de cultivo</i>	<i>Cuántia de la ayuda</i>
* Forrajes y proteaginosas	190 €/ha/año
* Pastos y praderas	193 €/ha/año
Patata de consumo	420 €/ha/año
Horticultura al aire libre	1.284 €/ha/año
Horticultura en invernadero	2.013 €/ha/año
Frutos secos	448 €/ha/año
Fruticultura	900 €/ha/año
Viticultura (txakoli)	900 €/ha/año
Cereales grano	244 €/ha/año

<i>Ganado</i>	<i>Base para la imputación a la prima por ha de la producción ganadera</i>
Avicultura carne	109 €/UGM
Avicultura puesta	75 €/UGM
Caprino	63 €/UGM
Ovino carne	56 €/UGM
Ovino leche	63 €/UGM
Vacuno carne	32 €/UGM
Vacuno leche	117 €/UGM
Equino	29 €/UGM
Porcino	137 €/UGM

* La suma de las distintas primas por UGM de ganado se sumará al importe base de la superficie de cultivos de forrajes, proteaginosas, pastos y pradera de manera proporcional. Esta prima de ganado será como máximo de 2 UGM por cada una de las hectáreas indicadas. Asimismo, una vez hecha la suma, se comprobará que el pago por ha no supera el máximo de 450 €/ha. Los montes de utilidad pública asignados a las personas beneficiarias no tendrán derecho a la ayuda por este concepto.

• Medida 11.2. Mantenimiento de agricultura ecológica.

<i>Grupo de cultivo</i>	<i>Cuántia de la ayuda</i>
* Forrajes y proteaginosas	168 €/ha/año
* Pastos y praderas	193 €/ha/año
Patata de consumo	348 €/ha/año
Horticultura al aire libre	923 €/ha/año
Horticultura en invernadero	1.561 €/ha/año
Frutos secos	372 €/ha/año
Fruticultura	900 €/ha/año
Viticultura (txakoli)	900 €/ha/año
Cereales grano	222 €/ha/año

<i>Ganado</i>	<i>Base para la imputación a la prima por ha de la producción ganadera</i>
Avicultura carne	93 €/UGM
Avicultura puesta	69 €/UGM
Caprino	56 €/UGM
Ovino carne	51 €/UGM
Ovino leche	56 €/UGM
Vacuno carne	26 €/UGM
Vacuno leche	103 €/UGM
Equino	26 €/UGM
Porcino	127 €/UGM

* La suma de las distintas primas por UGM de ganado se sumará al importe base de la superficie de cultivos de forrajes, proteaginosas, pastos y pradera de manera proporcional. Esta prima de ganado será como máximo de 2 UGM por cada una de las hectáreas indicadas. Asimismo, una vez hecha la suma, se comprobará que el pago por ha no supera el máximo de 450 €/ha. Los montes de utilidad pública asignados a las personas beneficiarias no tendrán derecho a la ayuda por este concepto.

Si la ayuda resultante de la solicitud realizada no superase el importe de 300 euros, dicha solicitud no tendrá derecho a ayuda.

La concesión de las ayudas se realizará mediante el procedimiento de concurrencia competitiva, dentro de los límites del crédito existente.

6. *Eskaerak aurkezteko tokia eta epea.*

Aurtengo eskaerak ustiategi bakoitzaren kokalekuari dago-kion eskualdeko nekazaritza bulegoetan aurkeztu ahal izango dira, 2017ko maiatzaren 2a bitartean, eskaera bakarra modalitatean, horretarako ezarritako epean eta zuzeneko ordainketako erregimenari eta azaleraren araberakoari dagozkien gaine-rako laguntzekin batera, Batzordearen 2014ko martxoaren 11ko 640/2014 Erregelamendu Eskuordetuan (EB) ezarritakoaren arabera. Erregelamendu horren bidez osatu egiten da Euro-pako Parlamentuak eta Kontseiluak 2013ko abenduaren 17an emandako 1306/2013 Erregelamendua (EB), Nekazaritzako Politika Bateratuaren finantzaketari, kudeaketari eta jarraipe-nari buruzkoa. Eskaera epea automatikoki eta neurri berean luzatuko da, baldin eta eskaera bakarra egiteko epea luzatzen bada.

Halaber, 640/2014 Erregelamendu Eskuordetuaren (EE) arabera, atal honen lehen paragrafoan aurreikusitako epea amaitu ondoren aurkeztutako eskaerak onartu egingo dira, baina atzerapeneko lanegun bakoitzeko konpentsazioko kalte-ordainaren %1eko murrizketa aplikatuko da. Eskaerak aurkez-teko gehieneko atzerapena 25 egun naturalekoa izango da.

7. *Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.*

Eskaera orrian, Departamentuko foru diputatuak onartu-tako ereduaren arabera, eskatzailearen ondorengo aitortpenak sartuko dira:

– Onuradun izateko debekurik ez duela (2007ko martxo-aren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Histori-koko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan ezarritakoaren arabera).

– Ezagutzen dituela Europar Batasunak, Estatuak, EAEk nahiz Foru Aldundiak ezartzen dituzten baldintzak, laguntzen erregimenei buruzkoak.

– Edozein nekazaritzako diru laguntza jasotzean hartu dituen konpromisoak betetzea, bereziki, nahitaez betebeharreko gutxieneko arauak eta nekazaritza ingurumenaren eta kli-maren arloko laguntzan edo nekazaritza ekologiko laguntzan hartutako konpromisoak.

– Helburu bereko nekazaritza diru laguntza ez eskatzea.

– Lerro bakoitzari dagozkion onargarritasun baldintzak, oinarritzako araudia eta konpromiso espezifikoak betetzea, gutxienez 5 urtez jarraian, lehenengo urteko laguntzaren deial-ditik aurrera (nekazaritza ekologikora bihurtzeko laguntzen kasuan, konpromiso aldi hori bihurketak irauten duen denbo-rara mugatuko da). Gutxieneko arauak, baldintzak edo nahi-taezko konpromisoak aldatuz gero, zorrotzagoak badira, onura-dunak eskubidea izango du moldaketa berria ez onartzeko. Kasu honetan, konpromisoa bukatutzat ematen da eta konpro-miso aldiarengatik ez da eskatuko ekarpenik. Era berean, har-tutako konpromisoek egungo programazioa aldia gainditzen badute eta onuradunak hurrengo programazio aldiaren marko juridikora egokitzea ez badu onartzen, amaitutzat joko da oro-bat, eta ez da eskatuko inolako ordainketarik.

Halaber, eskaera orrian sartuko dira:

– Baimena, Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuari eskumena duten organoeta-tik zuzenean zerga betebeharreran eta Gizarte Segurantz-a koetan egunean dagoela egiaztatzen duten agiriak lortzeko.

– Nekazaritza ekologikorako laguntzen kasuan, baimena, Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Ore-kako Departamentuari eskumena duten organoetatik zuzenean

6. *Plazo y lugar de presentación de solicitudes.*

Las solicitudes de ayudas relativas al año en curso podrán formalizarse en las Oficinas Comarcales Agrarias correspondientes a la ubicación de la explotación agraria hasta el 2 de mayo de 2017, en la modalidad de solicitud única, coincidiendo con las fechas habilitadas para la misma y en conjunto con el resto de ayudas correspondientes a los regímenes de pago directo y por superficie, de conformidad con lo establecido por el Reglamento Delegado (UE) n.º 640/2014 de la Comisión, de 11 de marzo de 2014, por el que se completa el Reglamento (UE) n.º 1306/2013 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 17 de diciembre de 2013, que trata sobre la financiación, gestión y seguimiento de la Política Agrícola Común. El plazo de solicitud se ampliará automáticamente y en la misma medida en que, en su caso, se amplíe el periodo de realización de la solicitud única.

Asimismo se admitirán, de conformidad con el referido Reglamento Delegado (UE) n.º 640/2014, las solicitudes formalizadas posteriormente a la finalización del plazo previsto en el primer párrafo del presente apartado, aplicándose una reducción del 1% del importe de la indemnización compensatoria por día laborable de retraso. El retraso máximo en la formalización de solicitudes no podrá exceder de 25 días naturales.

7. *Documentación a presentar con la solicitud.*

El formulario de solicitud, según modelo aprobado por la diputada foral del Departamento, incluirá las declaraciones a formular por la persona solicitante de:

– No estar incurso en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de persona beneficiaria (establecidas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa).

– De conocer las condiciones establecidas por la normativa europea, estatal, autonómica y foral relativa a los regímenes de ayuda solicitados.

– De cumplimiento de los compromisos adquiridos con ocasión de la concesión de cualquier ayuda agraria, y en concreto las normas mínimas de obligado cumplimiento y los compromisos adquiridos de cualquier ayuda de agroambiente y clima, o agricultura ecológica.

– De no solicitar otra ayuda agraria con la misma finalidad,

– De comprometerse a cumplir las condiciones de admisibilidad, la normativa básica y los compromisos específicos sujetos a cada línea de ayuda durante al menos 5 años consecutivos desde la convocatoria de concesión de la ayuda del primer año (en el caso de agricultura ecológica en conversión el plazo obligatorio se ajustará al período que dura la conversión). En caso de modificarse las normas mínimas, requisitos o compromisos obligatorios, de modo que sean más rigurosos, la persona beneficiaria tendrá derecho a no aceptar la nueva adaptación. En este caso, el compromiso se dará por finalizado sin que se exija reembolso alguno por el período de compromiso efectivo. Asimismo, en caso de que los compromisos contraídos rebasen el periodo de programación actual y la adaptación al marco jurídico del período de programación siguiente no sea aceptada por la persona beneficiaria, también se darán por finalizados sin que se exija reembolso alguno.

También se incluirán en el formulario:

– La autorización, en su caso, al Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial para solicitar directamente a los órganos competentes los certificados de estar al corriente de las obligaciones fiscales y en el pago de las cotizaciones a la Seguridad Social.

– Para las solicitudes de ayuda a la agricultura ecológica, la autorización, en su caso, al Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial para solicitar directa-

zerga informazio lortzeko, nekazari aktiboa izateko onarpen irizpideak betetzen direla egiaztatzeko.

Eskaera orriarekin batera diru laguntza lerro bakoitzari dagokion dokumentazio espezifikoak aurkeztuko da.

- 10.1. neurria. Ekoizpen integratua.

– Euskadiko Ekoizpen Integratuko Eragileen Erregistroko inskripzio ziurtagiria, ekoizleen atalean. Orientazio produktiboa adieraziko da eta inskribatutako nekazaritza lursail bakoitzaren azalera.

– Mahastientzako, Getariako Txakolina jatorri izendapenaren mahastien erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria.

- 10.2. neurria. Euskal Herriko sagardotarako sagarrondoaren tokiko barietateak, higadura genetikoaren mehatxupean daudenak, kontserbatzea.

– Sagarrondoaren landaketarekin zerikusia duen elkarte profesional bateko kide izatearen ziurtagiria edo egiaztatutako teknikari baten aholkularitza izatearen ziurtagiria. Ziurtagirian adieraziko dira bertako barietateko sagarrondo landaketak dituzten nekazaritza lursailak eta landaketa dentsitatea.

– Balego, aurreko urtetan sagardotarako sagarrondo landareak erosteko laguntza eskaeraren kopia, barietateak eta landaketa markoa ziurtatzen duenak.

– Nekazaritza lursailaren aireko argazkia. Bertan, krokis baten bidez adieraziko dira berako barietateen landaketa azalera eta landaketa egin zen urtea.

- 10.3. neurria. Bertako abere arrazen kontserbazioa.

– Dagokion arrazako Hazleen Elkartekoa dela egiaztatzen duen ziurtagiria. Elkartekak ziurtatuko du eskatzaileak arrazari dagokion hobekuntza programa betetzen duela eta liburu genealogikoan inskribatuta dagoen abere errolda adieraziko du.

- 10.4. neurria. Erlezaintza, biodibertsitatea hobetzeko.

– Gipuzkoako Lurralde Historikoan erlezainen elkarte aitortu bateko kide izatearen ziurtagiria edo egiaztatutako teknikari baten aholkularitza jasotzen duen ziurtagiria.

– Erlezaintza erregistroaren erlezaintza ustiategiaren eta transhumantziaren dokumentua.

– Ustiapen plan bat, erlauntzen mugimenduak aurreikusiko dituen (egonaldia; transhumantzia aldia, hala badagokio; kokapenak).

– Euskal Eztia ekoizteko Eusko Label markan inskripzio ziurtagiria edo ezti ekologikoa ekoizten bada, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren (ENEK) erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

- 10.5. neurria. Mendiko larreen aprobetxamendua kudeatzea.

– Diruz lagundu daitekeen herri onurako larreen aprobetxamenduatik ordaindu beharreko tasen azken ordainagiria.

- 11.1 eta 11.2 neurriak: nekazaritza ekologikora bihurtzea eta mantentzea.

– Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren (ENEK) Eragileen Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria. Bertan, adieraziko dira ustiategiaren ekoizpen orientazioa eta erregistratuta dauden nekazaritza ekologikora bihurtzen ari diren lursailen zerrenda, azalera eta landaketa zehaztuz.

mente la información fiscal a los órganos competentes para poder determinar el cumplimiento del criterio de admisibilidad de agricultor activo.

Junto con dicho formulario de solicitud habrá de presentarse la documentación específica correspondiente a cada una de las líneas de ayuda:

- Medida 10.1. Producción integrada.

– Certificado de inscripción en el Registro de Operadores de Producción Integrada de Euskadi en el apartado de productos, con indicación de la orientación productiva y superficie de cada una de las parcelas agrarias inscritas.

– En el caso de la vid, certificado de inscripción en el registro de viñas de la Denominación de Origen de Getariako Txakolina.

- Medida 10.2. Conservación de variedades locales de manzano de sidra del País Vasco amenazados por erosión genética.

– Certificado de pertenencia a una asociación profesional relacionada con el cultivo del manzano o certificado de disponer de asesoramiento por un técnico acreditado. En el certificado se indicarán las parcelas agrarias con cultivo de variedades locales de manzano de sidra y su densidad de plantación.

– En su caso, copia de la/s solicitud/es de ayuda por la adquisición de planta de manzano de sidra de años precedentes que justifica las variedades y el marco de plantación.

– Fotografía aérea de la parcela agraria solicitada, indicando mediante croquis las superficies de cultivo de las variedades locales y su año de plantación.

- Medida 10.3. Conservación de razas animales locales.

– Certificado actualizado de pertenencia a la Asociación de razas correspondiente. La asociación certificará que la persona solicitante cumple el Programa de Mejora de la correspondiente raza e indicará el censo de ganado inscrito en el libro genealógico.

- Medida 10.4. Apicultura para la mejora de la biodiversidad.

– Certificado de pertenencia a una agrupación de apicultores reconocida en el Territorio Histórico de Gipuzkoa o certificado de disponer de asesoramiento por un técnico acreditado.

– Documento de Explotación Apícola y trashumancia del registro apícola.

– Plan de explotación que incluya las previsiones de movimientos de colmenas (período de estancia; plan de trashumancia en caso de hacerlo; ubicaciones).

– En su caso, certificado de inscripción en la marca Eusko Label para producción de miel «Euskal Eztia» o en caso de producción de miel ecológica certificado de inscripción en el Registro del Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi (ENEK).

- Medida 10.5. Gestión del aprovechamiento de los pastos de montaña.

– En su caso, último recibo pagado de las tasas de aprovechamiento de los pastos de utilidad pública subvencionables.

- Medidas 11.1 y 11.2. Conversión o mantenimiento de agricultura ecológica.

– Certificado de inscripción en el Registro de Operadores del Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi (ENEK), con indicación de la orientación productiva de la explotación y relación de parcelas agrarias en conversión registradas especificando superficie y cultivo.

8. *Jakinaraztea.*

Prozeduraren ebazpena interesatu guztiei jakinaraziko zaie, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 40. artikuluan ezartzen duen bezala.

8. *Notificación.*

La resolución del procedimiento será notificada a todas las personas interesadas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.